



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

EKONOMIA  
ETA ENPRESA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE ECONOMÍA  
Y EMPRESA

# EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Euskal Herriaren ezaugarri sozioekonomikoek erakusten duten bezala, bertan aspaldikoa da ekonomia soziala eta solidarioa izateko ohitura, eta etorkizunean are gehiago garatzeko aukera ere handia da. Mondragon kooperatiba fenomeno ezagunena da, baina, horrez gain, adierazle sozio-ekonomikoak aztertzen baditugu, argi ikusiko dugu EAEn gogoz sustatu direla ekimen produktiboak, bestelako ekonomia-eredu bat bultzatzeko eta ohiko eredu klasikoa (merkatuarekin eta errentagarritasunarekin lotuta) gainditzeko. Duda barik, ekonomia sozialaren eta solidarioaren arloko jarduera ekonomikoak hedatu egingo dira. Hori dela eta, prestakuntza akademiko eta zientifikoa duten profesionalak beharko dira, sektore horretako erakundeetan lan egiteko, eta aholku emateko. Masterraren helburu nagusia ekonomia sozialean eta solidarioan espezializatutako

unibertsitate-profesionalak trebatzea da. Izan ere, arlo horren garrantzia gero eta handiagoa da gaur egungo ekonomian eta gizarteetan. Gaur egungo gizarteetan, balore etiko eta solidarioetan oinarritutako esku-hartzeak behar dira, aldaketa soziala eta ekonomiko bultzatzeko. Masterreko prestakuntza akademiko eta zientifiko horren bitartez, herritarren behar horiei erantzuteko, hots, esku-hartze horiek egiteko gai diren profesionalak eta agenteak sortuko dira. Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak (GEZI) sustatu du «Ekonomia sozial eta solidarioa» masterra. Honako hauek dira masterreko laguntzaileak: Hegoa Institutua, Lan Harremanen Unibertsitate Eskola, Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua I eta Enpresa Zuzenbidea sailak.

---

## SARBIDEA

---

Gizarte Zientzietako ikasleek lehenetasuna izango dute. Ikasketa lehenetsiak: Ekonomia, EAZ, Zuzenbidea, Lan Harremanak, Soziologia, Politika

Zientziak, Komunikazio Zientziak, etab. Horrez gain, beste gradu batzuetako (Giza Zientzietakoak, batik bat) ikasleak ere onartzen dira.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Arlo profesionalari dagokionez, gaitasun zehatz horiek dituzten profesionalak behar dira zenbait erakundetan. Erakundeok dira, besteak beste, kooperatibak, lan-sozietateak, enplegu-zentro bereziak, laneratzeko enpresak, etab. Horrez gain, kudeaketa-prozesuen kalitatea eta

gizarte-erantzukizun korporatiboa zaintzeko interes gero eta handiagoa duten erakundeetan eta enpresetan ere jardun dezakete.

Arlo akademikoan: UPV/EHUko «Garapenari buruzko ikasketak» izeneko doktorego-programan sartzea.

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

<b>Eskolak emateko lekua:</b>	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Donostia).
<b>Irakaskuntza mota:</b>	Erdi-presentziala.
<b>Hizkuntza:</b>	Gaztelania.
<b>Gutxi gorabeherako prezioa:</b>	1.850-2.050 €.
<b>Egutegia:</b>	Irailetik ekainera, arratsaldez.

---

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

---

60 ECTS / ikasturte 1

<b>Nahitaezko Gaiak</b> 39 ECTS kreditu	<b>Hautazko Gaiak</b> 12 ECTS kreditu	<b>Proiektuak / Ikerketa-lanak</b> 9 ECTS kreditu	<b>Guztira</b> 60 ECTS kreditu
--	--	--	-----------------------------------

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

- Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa: teoria eta garapenak ECTS).
- Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaren erakundeak (6 ECTS).
- Esku-hartze publikoa eta gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa (6 ECTS).
- Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa (ESS) erakundeen antolakuntza eta administrazioa (12 ECTS).
- Praktiak (9ECTS).
- Master amaierako lana (9ECTS).

### Hautazkoak 3 ECTS

- Gizartean Esku-hartzeko Tresnak eta Estrategiak.
- Garapenerako lankidetzeta eta gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa.
- Finantza Etikoak.
- Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaren erakunde etika.
- Lan harremanak gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaren erakundeetan.
- Gizarte erantzukizun korporatiboa gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaren erakundeetan.
- Ekonomia sozial eta solidarioa.

---

## HARREMANETARAKO

---

**Arduraduna:** Enekoitz Etxezarreta  
Etxarri  
**Tel:** 943018072  
**Posta elektronikoa:**  
enekoitz.etxezarreta@ehu.eus

**Informazio administratiboa:**  
Mikel Imaz  
**Tel:** 943017498  
**Posta elektronikoa:**  
gezki@ehu.eus

---

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

---

